

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## INAUTERIEN IRAGARLEAK

Puska biltzaileak Buruntzan izan ziren aurreko asteburuan. Kaldereroak eta inauteriak bertan dira. / 2-3

## Edizioz edizio indartuz doan piano jaialdia

Hamalagarren edizioan ere, Andoaingo Piano Jaialdia ezinbesteko erreferentzia bilakatu da Euskal Herri osoko musika eskolentzat. Antolatzaileen lana oso handia da / 8-9



**Andoain Laburrean lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Bastero Kulturgunean / 7**



**Elkartasun izaerako magia eta txokolate jatea Urnietan, Super H elkartearen eta Udalaren eskutik / 10**



**Kopako finalerako sailkapena lortuta, Espainiako selekzioarekin jokatzeke deitu dute / 12**



## Zeelanda Berria autokarabanan ezagutu

**Kopuru mugatua  
Irteera abuztuan  
Andoaindik Zeelanda Berriara**



**The Tolkien Centre**  
Ingeles eskola  
943 300 839  
info@andoainenglish.com



Axeiak, Serorategi baserriaren atarian, bertakoekin batera ateratako argazkian. AIURRI

# Inauteriari deika

Buruntza auzoan barrena ibili ziren axeri dantzariak joan den larunbatean, puska biltzearen ohitura zaharra indarberrituz. Eguraldi bikaina bidelagun, ibilbide osoa aurrez ikusi bezala bete ahal izan zuten. Auzotarrek biziki eskertu zuten festa giroko kalejira



Axei dantzan ohikoak dira borrokaldiak eta ziri-sartzeak. AIURRI

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Buruntza auzoak dozenaka baserri eta etxe ditu sakabanatuta, Urnietako mugara bitarte. Horietak gehienetara iristen saiatu ziren axeri dantzariak. Upategi, Larramendi, Goiargi, Luharbil, Zalbide, Elizagarate, Eguarastxiki, Elizagarateandi, Serorategi, Arrieta, Gaztañaga, Eguzkitza, Lizarra, Gorostidi... Aldaba non jo, harrera ezin hobearekin egin zuten topo axeriek. Non baino non hamaketako ederragoarekin gozatzeko aukera eduki zuten hogeita bost bat axeri dantzariak, eta horiekin batera ibili ziren hiru txistulariek ere.

Han-hemen ibili ostean, Buruntzako mendi puntarako bidean, bazterrean kokatzen den Gorostidi baserri atarian egin zituzten azken dantza eta kantu saioak. Festarekin amaitu aurretik, baina, baserri horretako semea den Unai Bengoetxeari une hartan bertan bideoz egindako grabazio bat igorri zioten; izan ere, gaztea Arabako bertsolariaren txapelketan parte hartzeko zen arratsaldean, eta animoak luzatu nahi izan zizkioten.

San Juan egunean Goikoplazan eskaintzen dituzten dantza eta jolas berberak errepikatu zituzten Puska biltzean: txingoa zenbaitetan, orratzakoa edo paseoa bestetan... Arin arin eta fandagorik ere ez zen falta izan.

Axeri dantzarien puska biltzeak inauteriek berezkoa duten giro festazale eta zirikatzailea zabaldu zuen larunbatean, eta kaldereroen konpartsak hartuko dio lekukoa larunbat honetan. Mozorroen tradizioaren sokak ez du etenik Andoain herrian.

## Errotzen ari den tradizioa

Axeri dantzarien puska biltzea errotzen ari den tradizioa da Andoainen, eta etorkizuna ziurtatuta daukala dirudi. Baldin eta dantzariak baserriko errondarekin jarraitzen badute eta Sorabilla, Buruntza, Leizotz eta Goiburu Andoaingo lau baserri giroko auzotarrek larunbatean erakutsi zuten abegi onari eusten badiote. Festa alai eskaintzeko moduarekin asmatu egin da. Erronka horri eustea da. Joan zen larunbatean ikusitakoagatik, luzerako bidea egiteko dauka puska biltzeak Andoainen.

## ANDOINGO INAUTERIAK 40 URTE 1979-2019

Aurtengo logotipoa. UDALA

### Urteurrena ospatuko dute inauterietan

Lehen karroza eta konpartsa desfilerako deialdia egin zenetik 40 urte beteko dira aurtengoan. Udalak data seinalatua gogoan hartuz, logotipo bereizgarria sortu du. Egun hauetan, bestalde, etxebizitza guztietara iritsiko da inauterietako egitaraua. Puska biltzea eta Kaldereroen etorrera iragartzeaz gain, aurtengo hitzordu nagusiak bildu dituzte. Aiurri astekariko agenda atalean ere kontsulta daitezke lehen hitzorduak. Datorren Aiurri astekarian tarte zabala eskainiko zaie Andoaingo eta Urrietako inauteriei. Aurten, gainera, bi herrietan inauterietako igandean ekitaldiak antolatu dituzte.

### Auzotarrak axeriekin pozik



Maritxu Lasa. AIURRI

“Ederra da gazte jendea kantari, dantzan eta saltoka ikustea. Giro sanoa eta festarako gogoia ekarri dute axeriekin. Aurrez jakinarazi ziguten goiz samar pasako zirela, eta bete dute hitza. Prest geunden ongietorria emateko, hamaiketako legea jarrita mahaietan. Orain lau urte etortzekoak ziren, baina eguradli petralak dena zapuztu egin ziren. Kanean bizi den jendeak ez dakit zer pentsatuko duen, baina baserrietan herritik aparte bizi garenok izugarriko poza hartzen dugu. Zer esanik ez urtetan aurrera goazenok! Estimaten dugu herritik baserri giroetara festa ekartzeko ahalegina egin izana”.



Baxilio Zipitria. AIURRI

“Poza ematen du horrela jendea etortzea gure baserrira. Jaietako oilasko biltzeaz aparte, nik bakarrik Santa Ageda eskea ezagutu dut auzoan. Gogoan dut, aspaldian, auzolanean nola ireki genuen mendi pista, aitzurra eta dinamitarekin harria zulatuz. Lanak ondo egin genituen ala ez ikusteko, Bixente “Txitxarrain” en kamioia hartu zen proba egiteko, Mariano “Bonbon” gainean zuela. San Roke jaietan astoa zamatuta igotzen genituen traste guztiak. Erromeriaren erdian ardo txuria falta zela-eta, behin, garrafoia bizkarrean hartu eta kaletxikira jaitsi behar izan nuen bila, lasterka batean”.

### Baserriz baserri bisitan



Miren Ansa eta bere alaba Jasone Usandizaga Serorategi baserri aurrean.

**Serorategi baserria** Axeri dantzariak saiatzen dira umorea kutsatzen auzotarrei eta ikusten denez, Mirenekin lortu zuten. Lastozko txapela jantzi eta haiekin festaz gozatzeko prest azaldu zen.



Eguzkitza baserrikoekin. AIURRI

**Eguzkitza baserria** Juanita Tapia etxeko andrea, Ekaitz Ollo 'Tolo' eta Aitziber Ugartemendiaren artean. Axeri dantzariak auzotarrei zapi zuriak jartzen dizkie lepoan, dantzaren bereizgarri gisa.

### Andoaingo inauterien berrogei urteak bazkari batekin ospatzeko deialdia luzatu dute

#### Postontzia

#### Antolaketa batzordea

“Andoaingo Inauteriak aurtun 40 urte betetzen ditu, eta hori ospatzeko, besteak beste, herri bazkaria antolatu da. Martxoak 3an izango da, igandea, 14:00etan. Goikoplazan karpa bat jarriko da, eta hauek dira eskainiko diren menuak:

Helduen menua: entsalada, paella mistoa, postrea, edariak, ogia eta kafea. 15 euro. Haurren menua, 12 urte artekoa: makarroiak tomatearekin eta urdaiazpikoarekin, eskaloopa chips patatekin, eta sandwich izozkia. 8 euro. Txartelak Bastero Kulturgunean salgai egongo dira



otsailaren 25era arte. Orduetgia: 10:30-13:00 / 16:30-19:30. Bazkarian parte hartu nahi baduzue ez ahaztu txartelak

erosi behar dituzuela epe horren barruan. Epea amaituta ez da plazarik erreserbatuko. Gora Andoaingo Inauteriak!”



Baserri atarian, ongi etorri eskainiz. AIURRI

**Eguarastxiki baserria** Martina Balda bertako etxeko andreak egin zien harrera puska biltzaileei. Andoaingo herrigunetik nahiko urruti gelditzen den baserria da berea, eta biziki eskertu zuen bisita.



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

## Udal hauteskundeak: EH Bildu

Agintaldi bakoitzean protagonista berriak agertzen dira. Gobernu taldean lanean, bestalde, eskarmentu handia hartzen da. Lau urteotan ikusitakoaren arabera, Jon Zulueta alkategai izan zitekeen. Edozein alderdik berean nahiko lukeen bozeramailea da, argudioak arin eta modu ulergarrian defendatzen dituen udal ordezkaria baita. Hari erantzun eta ika-mikan jarraitzeko trebezia behar da. Esti Mujika ere alkategai izan zitekeen. Alor ezberdinetan nabarmendu da, eta adin eta sektore askotako pertsonekin lan egitea egokitu zaio. Ana Carreren eta Ainara Rodriguezen zikloa amaituta, alternatiba logikoena Jon Zulueta edo Esti Mujika ziren. Baina ez. Eta udazkenak albisteak ekarri zuen: EH Bildu agintemakila udal politikagintzara datorren pertsona berri bati eskaini dio. Zulueta eta Mujika baino gazteagoa, Andoni Alvarez (38 urte) eskarmentu handikoa da kirolean eta herri mailako ekimen ezberdinetan. Oso ezaguna da Andoain herrian. 33 urte zituen Andoaingo Kirol Astearen omenaldia eskaini ziotenean. Hain gazte eta hain baloratua izatea kasu bakana da. Mujika eta Zulueta ez dira oso apartean ibiliko. Beraz, ezagutza publikoan eta eskarmentuan, EH Bildu faboritoen kinielan sartu behar da.

Ezker abertzalea garaile izan da aurkezteko aukera izan duen azken hiru Udal hauteskundeetan. Alkategai berria du, baina zortzi urteko aginte-zikloa betetzen ari da. Lau urte gehiago? Apustua dago. Galderak airean, hauexek batzuk: Boterean irauteak, eta bereziki Udal gobernutik maila txikiko eta ertaineko dozenaka erabaki hartzeak, higadura eragingo al dio? Eta boto galera egongo balitz, zenbatekoa izango litzateke? Hautagai berri eta gaztea aurkezteak ilusio berriak pizten lagunduko al die?

Alderdien Legeari aurre eginez, andoaindar askoren botoak jaso zituzten 2011n. Politikara itzul zitezten, ongietorri modukoa eskaini zien andoaindarren gehiengoak. 2011-2015 agintaldia arazo ekonomiko larrien agintaldia izan zen, ia-ia akordiorik lortu gabe kudeatu zena.

2015-2019 agintaldia, berriz, azpiegituren eraberritzearena izan dela esan daiteke. Ur hoditeria eta argiteria berritzeko lan sakona, hondakinen bilketa balio onargarrietara itzultzeko saiakera eta gizarte mailako hainbat neurri martxan jartzeko zikloa. Ikusten ez den lana, kasu gehienetan. Horixe sarituko al du botu-emaileak? Horrekin asetuta geratuko al da zalantzi dagoena? Diru kontuak bideratu ondoren, azpiegiturak berritu ondoren..., Anbizioz jokatzeko aroa izan daiteke 2019-2022 zikloan alkatetza eskuratzen duenarentzat.

Gaur gaurkoz, EH Bildu lehen indarra da (2.112 boto), baina atzetik datozen alderdiak ez daude hain urrun. PSE-EE oposizio buru da (1.887 boto), deialdiz deialdi botuetan galtzen ari bada ere. EAJ-PNV hortxe dago (1.750 boto), bosgarren zinetzia eskuekin ukituz. Unidos Podemosen eremu hori (ia 1.000 boto, Irabazi eta Ganemosen batura eginez) sendo dagoen edo ez ikustear dago. Oso hauteskunde irekiak izan daitezke, Espainian hain aldakorra eta nahasia den aro politikoan. EH Bildu, oinarri sendoa izan arren, azken botoaren alde borrokatu beharko du.

Andoainen EH Bildu garaipen argia lortzeko premian dagoen alderdi bakarra da. Gainerako alderdi nagusiek, irabazi gabe ere, boterea eskuratu dezaketelako. Ondo gogoan baitugu alkatea izendatzea 17 pertsonen erabakia dela. Zinetzotzi akta lortuko duten 17 karguena, hain zuzen.



PRENTSA BULEGOA

GIPUZKOAKO AECC MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA

## Gipuzkoako minbiziaren aurkako elkartearen erronka

AECC Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkarteak 2019rako Gipuzkoako gizarteari erronka bota dio: ikerketa onkologikoko proiektu baterako funtsak biltzen laguntzera animatzen du. Kanpaina honen bidez, AECC Gipuzkoak 160.000 euro lortu nahi ditu bularreko minbiziaren inguruko proiektu batean inbertitzeko, zehazki, zelula gaiztoak deuseztatzeko gaitasuna duten sistema immunearen zelulak sustatzen dituen terapia batean.

Ikerketa horren liderra Ignacio Melero doktorea da, Clínica Universidad de Navarra (CUN) Immunologia Zerbitzuko zuzendarikide eta Cimako senior ikertzailea. Ikerketa 2015ean hasi zen eta 2020an amaituko dela aurrez ikusi dute. Immunoterapiaren funtzionamendua guztiz ulertu nahi da aukera terapeutiko gisa ezarri aurretik. Hori dela eta, asmoa da immunoterapiaren erabilera sakonago ezagutzea, tumoreen aurkako ohiko tratamenduen erabilera eta norbere sistema immunearen aktibazioa konbinatuko dituen entsegu

kliniko eraginkorrak eta fidagarriak ezartzeko.

Hain zuzen ere, proiektuak etorkizun hurbilean eta esperimentazio fasearen barruan, Onkologikoarekin lankidetzan aritzea aurrez ikusi du Gipuzkoako paziente kopuru jakin batekin entsegu klinikoak egiteko.

Ikerketaren zati bat finantzatzeko funtsak lortzen lagundu nahi duten guztiek zenbait modu dute hori egiteko. Lehenik eta behin, norbanako gisa dohaintzak egin ditzakete, kopuru minimorik eta maximorik gabeko ekarpenak [www.retoaeccgipuzkoa.com](http://www.retoaeccgipuzkoa.com) webgunearen bidez, banku bidezko transferentzia edo Gipuzkoan dauden sei egoitza edozeinetan. Badira erronkari laguntzeko beste aukera batzuk ere: herentzien bidezko dohaintzak, sare sozialen bidezko erronka zabaltzea edo ezkontza-oparietarako aurrez

**BULARREKO MINBIZIARI LOTUTA, AECC-K 160.000 EURO LORTU NAHI DITU GIPUZKOAN**

ikusitako dirua helburu solidario honetarako bideratzea.

Bigarrenik, lurraldeko elkarte, kirol-klub edo erakundeek dohaintzan eman ditzakete urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldietako irabaziak: bazkari solidarioak, kirol-probak, ikuskizunak edo bestelako herri-gertakariak.

Azkenik, enpresek ere parte hartu ahal izango dute: erantzukizun sozial korporatiboko programen testuinguruan dohaintzak egin ditzakete erronka honetako.

**AECC Gipuzkoa, 2018ko balantzea**  
Elkarteak 30 urte baino gehiago daramatza lurraldean lanean minbizia duten pertsonen eta haien familiartekoen bizimodua hobetzeko eta gaixotasunaren aurka borroka egiteko asmo irmoarekin. 12.000 bazkide inguru eta 900 boluntario baino gehiagorekin itxi zuen urtea. Eskaintzen dituen doako zerbitzuei dagokienez, iaz elkarteko psiko-onkologoek 587 gaixo eta familiarteko artatu zituzten; aldiz, gizarte-langileak 416 lagunekin egon dira.

### POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus) | [urnieta@aiurri.eus](mailto:urnieta@aiurri.eus)



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebeze ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 38 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
[andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)  
[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketatzailea:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugartemendia. [idadkaritza@aiurri.eus](mailto:idadkaritza@aiurri.eus)  
**Publizitatea:** Fer Irazu. [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)  
**Banatzaleak:** Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus) | [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK:

AIURRIK HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

## PROTAGONISTA

# "Leialtasun handia dago Andoaingo Podemos alderdian"

MARIA TERESA SANTANO ANDOAINGO PODEMOS AHAL DUGU ALDERDIKO HAUTAGAIA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Estatu osoko hainbat udalerrietan egin bezala, Andoainen ere Podemosek Udal hautagaitzak erabakitzeko primariak deitu ditu. Teresa Santano alderdiko idazkari orokorra da, eta baita datorren maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetarako alkategaia ere.

**Andoaingo zirkuluaren aurkezpena egin zenetik hiru urte bete dira, eta maiatzeko Udal hauteskundeetara zuen markarekin aurkeztuko zarete. Prest zaudetela esan al daiteke?**

Horixe da gure zirkuluaren ustea. Denbora honetan guztian prestaketa lanetan aritu gara. Agintaldi honetan, esaterako, Udal politikagintzan parte hartzea izaten ari gara Ganemoseko eta Irabaziko kideen eskutik. Horrez gain, ordezkatzen dugun espazio politikoa ezin dela galdu uste dugu. Andoaingo udalgintza gure ordezkaritza gabe hankamotz geratuko litzateke.



Maria Teresa Santano, Podemoseko alkategaia Udal hauteskundeetarako. AIURRI

**Zein da Andoaingo politikari buruz egiten duzun analisia?**

Andoainen ezer gutxi alda zitekeela entzuten genuen, politikan hasi ginenean. Ia-ia alderdi politiko guztiak berdinak zirela zioten. Baina

ez da egia. Azken garaiotan Andoainen joera soziala handitzen ari da. Hala eta guztiz ere, parte hartzean sakondu behar dela uste dugu. Parte hartzeaz asko hitz egiten da, baina egin gutxiago.

Jeltzaleek eta sozialistek behin baino gehiagotan Podemosekoak izatea leporatu diete Irabazi eta Ganemoseko kideei, zergatik egiten duten oso argi egon gabe...

Hainbat plentotan ikusi dut hori. Zerbait txarra balitz bezala adierazten dute, hori dirudi. Eta euren buruaren kalterako dela uste dut. Olga Hernandezi itsusikeria modura esaten badiote, alperrik dabilta.

Podemosekoak izateaz oso harro gaudelako.

**Gobernu taldearekin Udal aurrekontua onartu izana nola baloratzen duzu zuk?**

Udal aurrekontuetan hainbat partida hobetzea lortu dugu. Gure aurrekontuak askoz hobekak izango lirarteke, baina Udal gobernuarenak blokeatzearen aurka gaude.

**Podemos alderdian haustura handiak izan dira. Andoainen, ordea, oso talde egonkorra duzue.**

Zalantzarik gabe. Ez dago gure arteko lehiarik, eta barne hautaketa prozesuan oso argi geratu da hori. Zirkuluaren leialtasun handia dago, eta hori mirezgarria da.

**Igande honetan hautagaitzaren aurkezpena egingo duzue.**

Kale Nagusiko egoitzan izango da. 11:00tan hasita, ekitaldia herritar guztientzat irekia izango da. Hamaiketako eskainiko dugu, gainera.

## HAU ERE BADUGU!

## Larunbaterako deialdiari keinua

23ko manifestaren alde!! Zatoz argazki herritarra ateratzera! Otsailak 21, 17:00etan, Egape ondoko plazan 🙌🙌🙌  
Urnietarrak! También apoyamos la manifestación del 23 de febrero. Nos reuniremos para la foto el día 21F en la plaza de Egape a las 17:00. 🙌🙌🙌 OSASUNAREN ALDE, ERRAUSTEGIRIK EZ!!! POR UNA VIDA SALUDABLE 🌱🌱🌱

'No eres de Urnieta sino...' Facebook orrialdean GuraSOS erakundearekin bat egiteko hitzordua iragartzen ari dira. Ostegunean taldeko argazkia atera nahi dute, larunbaterako manifestaziora joateko deitzearekin batera.

## Inauteri festa Urnietako Etxeberrin



Etxeberri plazan urtean zehar hitzordu ezberdinak antolatzen ari dira. Auzune gaztea dela esan daiteke, familia berri askorekin. Inauteriei begira, iganderako (martxoak 2) hitzordu ezberdinak antolatu dituzte. Besteak beste, txokolate jate solidarioa.

## Extremadurako herriak gogoan



Andoaingo Hogar Extremeño elkarteko kideak sorterriko hainbat bideo zabaltzen ari dira. Herrimina duenarentzat baliagarria da, baita hango herriak ezagutu ez eta noizbait hara joateko asmoa duenarentzat ere.

## DATUA

## "Pausoz pauso" aurkezpen ekitaldia

Emakumeen nazioarteko egunaren harira, Andoaingo Udalak prest du aurtengo programazioa. Andoaingo berezko ekitaldia "Pausoz pauso" kalejira-martxa da, zeinaren bitartez herriko hainbat emakumeri omenaldia egiten zaion. Datorren otsailaren 27an, asteazkenarekin, aurtengo omenduen berri emango dute Bastero Kulturagunean, arratsaldeko 18:30ean hasiko den ekitaldian. Protagonisten izen-abizenak aditzera ematearekin batera, euren iritzia jasotzeko aukera izango da. Hitzordu berean, aurtengo kartel lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

## GORA ETA BEHERA



## Andoaingo Piano Jaialdiaren antolaketa talde osoa

Deiadar elkarteko kideak, laguntzaile eta boluntarioak, Basteroko lantaldea... horiei guztiei esker jaialdia borobila izan da. Andoain musikaz eta bisitariez bete da, Bastero inguruetan garbi geratu zenez. Erreferentzia handia da musikari gazte askorentzat. Etorkizun oparoa duen jaialdia da.





AIURRI

## Gizarte gaiak aztergai Basteron

Maite Peña Foru Diputatuak hitzaldia eskaini zuen astearte arratsaldean, EAJ-PNV alderdiak antolatutako ekitaldian. Foru diputatuak zahartzearen erronkari aurre egiteko Gipuzkoan jarraituko den ibilbide orria aurkeztu zuen. Besteak beste, 2021erako prest egongo den zentro berriak eskualdeko egoitza plazen eskaria murriztuko duela iragarri zuen.



Sandra Barrenetxea eta Esti Mujika Berdintasun saileko teknikaria eta zinegotzia. AIURRI



AIURRI

## Pentsioak hizpide Bilgunean

Astearte goizean EH Bilduk Nerea Kortajarena legebiltzarkidea Andoingo Bilgunea gonbidatu zuen, pentsioen inguruan hitzaldia eskaini zezan. Kezkaz bizi den arazoa da, bereziki Andoainen. Izan ere, Goikoplazan astelehenero dozenaka lagun pentsio duinen alde elkarretaraten ari dira. Kortajarenak azken urteetan egin den lanaren diagnostia egin zuen.

## Kataluniarekin elkartasuna

Gure Esku Dagok deituta, joan zen igandean milaka lagun bildu ziren Donostian. Batetik, preso eta ihesean dauden Kataluniako politikoei elkartasuna adierazteko. Eta, bestetik, epaiketaren aurka agertzeko. Ekitaldian, besteak beste, Puigdemonten arrebak parte hartu zuen. Andoaindar ugari ikus zitezkeen manifestazioan zehar, eta baita amaiera ekitaldian ere.



GURE ESKU DAGO

# Emakumeei zuzendutako ikastaro sorta berria

Esti Mujika Andoingo Udaleko Berdintasun zinegotziak eta Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikariak jabeakuntza eskolaren ikastaro sorta berria aurkeztu zuten. Datozen egunetan eskaintza osoaren liburuxka etxez etxe banatuko dute

**Xabier Lasa** ANDOAIN

“Emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzeko asmoz antolatzen dira ikastaro horiek. Emakumeek euren izararen autokontzientzia hartzea, autoestimua lantzea, gaitasun propioak ezagutzea eta euren dagokien espazioa berreskuratzea dira ikastaro horiek bultzatzen dituzten helburuak, azken ba-

tean”, horiexek Esti Mujika zinegotziaren adierazpenak ikastaro sorta berriaren aurkezpen ekitaldian. Hurrengo egunetan Andoingo etxebizitza guztietara iritsiko da ikastaro buruzko xehetasunak biltzen dituen eskuorria (ezaugarriak, iraupea, ordutegiak...). Ikastaro guztiak doakoak izango dira, eta aukeran haurtzaindegi zerbitzua

eskainiko dute. Hiru modura eman daiteke izena: Urigain Etxean dagoen Berdintasun sailara hurbilduz, 943 300 830 telefono zenbakira deituz, edota berdintasuna@andoain.eus emailera idatziz.

Iaz ehundik gora emakumek hartu zuten parte ikastaro ezberdinetan. Aurten kopuru hori handitzea espero dute.

## Grebaren aldeko mahaia

Datorren martxoaren 8ko greba deialdiaren berri emateko, Andoingo Asanblada Feministak Juanita Alkain plazatxoan eta Goikoplazan informazio postu bana ipini zuen. Andoingo eta Euskal Herriko eragile ugari lan eta lan ari dira aste hauetan, grebaren arrakasta ahalik eta handiena izan dadin. Datorren larunbatean ere informazio mahaia ipiniko dute.



AIURRI



Aurtengo sarituak, Udal ordezkariekin eta epaimahaikideekin. AIURRI

# 'Andoain Laburrean', film laburren lehiaketa

Gazteen artean euskarazko ikus-entzunezkoak sustatzeko lehiaketa da, eta aurtengoa laugarren edizioa izan da. Saritutako lanak dagoeneko ikusgai daude andoainarraeuskaraz.eus webgunean.

**Xabier Lasa** ANDOAIN

'Andoain Laburrean' laburmetraien lehiaketaren sari banaketa egin zen Basteron, joan den ostegunean. Euskara gazteen artean eta ikus-entzunezkoen sektorean sustatzea helburu duen lehiaketa da, eta Andoaingo Udaleko Euskara Sailak eta Zine eta Bideo Eskolak elkarlanean antolatzen dute. Laugarren edizioa bete du aurtengoa. Saritutako bideoak dagoeneko ikusgai daude sarean, andoainarraeuskaraz.eus webgunean.

## Aurtengo sarituak

Hona jarraian aurtengo sarituak, eta epaimahaiaren iritzia horien gainean:

### • 1. saria: "Bidearen bukaera"

**Iker Casado.**

"Kontaera heterodoxo batetik, itzuli ezustekoekin, historiari osotasuna ematen asmatzen du. Hizkuntzaren maila on eta naturalagatik, herriko pertsonaiak sartzeko ahaleginagatik eta ikus-entzunezko hizkuntza desberdi-

nak era aproposalen baliatzen ditu".

### • 2. saria: "Ibilaldi bat Andoainen"

**Jonathan Molina, Jose Ignacio Olaiola eta Carlos Casales.**

"Andoaingo kaleetatik barrena, komertzioak bisitatzeke gonbidapena egiten duen eta spot itxurako lanak duen postproduktzioa azpimarratuz, Andoain herri erakargarri gsa aurkezten du".

### • 3. saria: "Soka".

**Klaudia Astudillo, Olatz Matxain, Eneritz Lopez eta Uxue Etxaniz.**

"Hitzen beharrik gabe, argiztapen zaindu batekin eta musikak beldurra edota misterioa behintzat sortaraziz, gizakiaren etsirik handiena batzuetan norbera dela adierazten du".

**SARITUTAKO LANAK IKUSGAI DAUDE ANDOAINARRA EUSKARAZ WEBGUNEAN**



Iker Casado aktore eta zuzendaria, "Bidearen bukaera" laburmetraian.

Aurtengo sari banaketa ekitaldiko gonbidatu berezia Iban De Campo zuzendaria izan zen; egin berri duen "Espedizio handia" zientzia fikziozko laburmetraia aurketu zuen, eta ondoren, zinemagintzan orain arte egin duen ibilbideari buruzko azalpenak eskaini zituen.

Joxe Felipe Auzmendi, Juanjo Elordi eta Jone Larrañagak osatu dute aurtengo epaimahaia.



Klaudia Astudillo, Olatz Matxain eta Uxue Etxaniz. AIURRI

## 'Soka' laburmetraia egileak

"Pertsona baten bizitza kontatzen du laburmetraia. Burua ez dabilkio zuzen, eta dena beltz ikusten du. Maiz gizakioi gertatzen zaiguna gertatzen zaio: arazoak dauzkala eta pentsatzen duela besteak direla arazo horien iturburu. Pertsonaiaren garapena kontatu nahi izan dugu, eta nolabaiteko mezu baikorra zabaltzen saiatu gara: alegia, norberak dituen arazoak norberak konpondu behar dituela kanpora begira jarri gabe, eta horretarako merezi duela saiakera egiteak. Aktore bat (Aritz Morras) agertzen da laburmetraian batik bat, eta istorio guztia bi minutura murriztu behar izan dugu. Plano ugari geneuzkan grabatuta, eta sintetizazio lan handia egin behar izan dugu; telebistako iragarki baten antzeko lana izan da. Ikusleek daukate azken hitza. Antolatzaileek lan sarituak sarean zintzilikatzeko asmoa daukate, eta beraz, lanak ikusteko gonbitaia luzatzen diogu edonori".





Amaierako kontzertuan eta sari banaketa ekitaldian partaide izan ziren musikariak. AIURRI

# "Gustura egoteko moduan gaude"

Basteroko bi aretoetatik ehunka musikari igaro ziren, asteburu osoan zehar. Planifikazio eta koordinazio handia eskatzen du horrek, talde lan handiarekin bakarrik aurrera atera daitekeena. Antolatzaileek pozarren agertu zuten, jaialdia amaitu eta berehala

## Xabier Lasa ANDOAIN

Pianoak eta dekorazioa bertan zirela, jaialdia amaitu berritan, Deiadar elkarteko kideei balorazioa eskatu zien Aiurri aste-kariak. Txitxu Castro, Ainhoa Aiertza eta Miriam Ulanga kamera aurrean jarri ziren, poza adierazteko. Hiruen izenean, hauexek Ulangaren lehen balorazioa: "Oso gustura egoteko moduan gaude. Martxa onean joan dira saioak eta ordutegia. Jendearen erantzuna ere oso ona izaten da. Ez da denbora aldetik atzerapenarik izan, eta

hasieratik planifikatu bezala igaro da jaialdia. Aurreikusitakoa oso ondo bete dela esan dezakegu".

## Antolatzaileen eskertza

Clara Schumannen jaiotzaren bigarren mendeurrenean, antolatzaileei haren obra zabaltzea ideia ona izan zitekeela bururatu zitzairen. Ideia lantzen hasi eta Francisco Escudero kontserbatorioko kideak gogoan hartu zituzten: "Schumannen lana mamitsua da, eta estatu mailan kasu bakaretan interpretatu da.

Francisco Escudero kontserbatorioko orkestra sinfonikoak egin zezakeela pentsatu genuen. Kontserbatorioko bi piano ikasle lanean jarri ziren, eta obra ikasi zuten. Zorionez gure asmoa aurrera atera zen, eta ostiraleko atariko emanaldia indartsua izan zela esan genezake. Musikariek hartutako lana eskertu nahiko nuke hiruron izenean. Baita emanaldian parte hartu zuten abesbatzari eta gure musika eskolako txikien abesbatzari ere. Katrin Iturraderi ere eskerrak eman nahi dizkiogu".



Txitxu Castro, Ainhoa Aiertza eta Miriam Ulanga Deiadar elkarteko antolatzaileak. AIURRI

Jaialdiari berari lotuta, "txalotzekoa da haur txikiekin Euskal Herriko musika eskolatan hartzen ari diren lana. Schumannen obrari loturiko sariketan, partaideek erakutsi duten maila zoragarria izan da. Urtez urte, jaialdiaren maila hobetzen ari gara. Hutsunea betetzen ari garela jakitun gara. Pianoa toki itxian jo behar izaten da, eta jaialdiaren bitartez musikari eta eskola askoren artean plaza bat eskaintzen diegula argi dago". Gurasoak, ikasleak, laguntzaileak, erakundeak,... eskertza

adierazteko garaian ez dute inor ahaztu nahi.

**Andoaingo alkatearen agurra jaialdiaren amaierako ekitaldian** Ana Carrere alkateak ere eskertza adierazi zien antolatzaileei, musikariei eta bisitariei. Balioan jarri zuen Andoaingo Piano Jaialdia: "Andoain herriarenentzat garrantzitsua da, baina baita jendaurren jotzeko aukera ematen zaion musikariarentzat ere. Datozen urteetan jaialdiak jarraipena izan dezala". Txalo artean agurtu zuten.





Bisitariak hurbildu ahala, Basteron informazio zehatza eskaintzen zieten. AIURRI



Jakes Txapartegi zarauztarrak larunbateko eta igandeko saioetan parte hartu zuen, txalo zaparrada eskuratuz. AIURRI



Musikarien txandak antolatu ondoren, ikuslegoari atekak zabaltzen zitzaizkien. AIURRI



Ioritz Jimenez eta Oihane Ulanga. Txitxu Castro eta Maddi Nuño. AIURRI




Urnietako musikarientzat ere esperientzia bikaina izan da. UDALA



**Kantu  
liburuxka**  
2 0 1 9

ARCITALPEN KEBEZIA



**Astarbe**  
943 551 527 Astigarraga

**Gaztañaga**

943 591 968 Andoain

**Larre-gain**

943 555 846

Ereñozu-Hernani

**Mizpiradi**

943 593 954 Andoain

**R. Zabala**

943 690 774 Aduna

**Sarasola**

943 690 283 Asteasu

**Sagardoa Route**

943 336 811 Gipuzkoa

**Hotel K10**

943 337 357 Urnieta

**Amasa-Villabonako Udala**

943 692 100

**Andoaingo Udala**

943 300 830

**Urnietako Udala**

943 008 000





ZABALIK

JULEN LORENZO RIVAS IPAR HAIZEA PLATAFORMAKO KIDEA

## Erraustegia bai ala ez?

Horixe izan zen aurreko ostegunean, Kanaldude iparraldeko telebista digitalari esker, Ipar Haizea plataformako kideok antolatuta burutu ahal izan genuen telebista saioaren gaia. Kolaborazio horri esker, gure telebista publiko den EITBn burutu ezin izan dugun erraustegiaren inguruko eztabaida egin ahal izan dugu azkenean. Telebista programaren izena "Zuzenean Zure Esku" da, eta pasa den ostegunean, otsailak 14, arratsaldeko 19:15etan hasi eta ia ordubeteko iraupena izan zuen. Alabaina, hori eskaini behar izan genion denbora tartearen zatitxo bat baino ez zen izan, telebista saioaren izenburuak ongi dioen moduan, prestaketaren zati bat guk geuk prestatu behar izan genuelako. Hilabeteetako lana izan da, Kanalduderen laguntzarekin betiere egin duguna. Grabaketa egunaren aurretik bi deialdi burutu genituen erraustegiaren aldeko Andoaingo EAJ-PNV, PSE-EE eta Biodonostiari parte hartzea eskatuz. Hori baitzen helburua, saioan aniztasuna bermatzea. Hala ere, zoritxarrez ez zen posible izan eta aipatutako solaskide horiek ez zuten parte hartu nahi izan. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Grabaketa egunaren aurretik Andoaingo kaleetan kale inkesta egin genuen, erraustegiaren inguruan jendeari beren iritzia galdetzeko. Erantzuna: guztiak aurka agertu ziren, baita kameratik kanpo iritzia eman nahi izan zutenak ere. Ez genuen aldeko inor aurkitu, saiatu baginen ere, eta herria alderik alde

zeharkatu genuen arren.

Adierazgarria, oso.

Solasaldiaren grabaketa Urigain kultur etxeko areto nagusian egin genuen.

Grabaketa ordua berehala ailegatu zen, ordea, eta hizlariak bertan zeuden, baita publikoa ere, Km 0 pintxo-pote goxoaz gozatu ondotik.

Hizlariak GHKko lehendakari

ohi Ainhoa Intxaurrendieta, Joxe Mari Irazusta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kidea, Xabier Mitxelena OEIT-GEISko medikua, GuraSOSeko Joseba Belaustegi, eta Ipar Haizea plataformako Elisa Alonso (aurkezle nagusia), Julen Begiristain (publikoko aurkezlea) eta ni neu (hizlaria) izan ginin.

Eskerrak eman nahi dizkiet parte hartzaile guztiei, gerturatu zirenei eta baita Kanaldudeko lantaldeari ere.

Saioaren bideoa ikusgai dago edonorentzat jada Kanaldude Nahieran gunean.

Bestalde, eta gaiarekin lotura duenez, GuraSOSek manifestazioa antolatu du larunbat honetarako (otsailak 23) Arratsaldeko 17:00etan Donostiako Antiguoko tuneletik hasita, "AdOStASUNARI esan BAIETZ!" lemapean, manifestazioa antolatu du, hondakinen kudeaketan adostasunaren aldarria eginez.

www.aiurri.eus

AIURRI  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia

## POSTONTZIA

EHBILDU, GANEMOS, IRABAZI ETA ZINEGOTZI EZ ATXIKIA ANDOAINEN ORDEZKARITZA POLITIKOA DUTEN ALDERDIAK

## Poza ostegun honetako plenoan aurrekontuak onartuko direlako

Otsailaren hasieran esan genuen bezala, urtarrilaren 29an Ogasun batzordean aurkeztu genuen Udal aurrekontu proposamena ostegun honetan onartuko dira plenoan. Pozik gaude, izaera sozialeko aurrekontu hauek, andoaindarren bizimoduaren eragin ona izango dutela uste dugulako. Otsailean iragarri genituen partida berriez gain, Andoaingo udalean ordezkariak duten talde guztien ekarpenak jaso ditugu.

EAJ-PNVren udal taldeak aurkeztu dituen zuzenketatik honako hauek txertatuko dira aurrekontuan:

- 75.000 euro herri bideak konpontzeko.
- 5.000 euroko partida gehituko zaio ISEN programari, egun dauden 25.000 euro baina gehiago behar izanez gero, partida handiagoa izateko.

- Zuhaitzen kimaketaren partida, 8.000 eurotik 20.000 eurora pasako da.

PSE-EEK aurkeztutakoetatik aldiz, bi hauek txertatuko dira aurrekontuan:

- 15.000 euro eskola materiala Andoaingo komertzioetan erosteko dirulaguntzarako.
- 25.000 euro gazteek etxebizitza alokatzeko laguntzak bideratzeko. Orotara 132.000 euro aldatuko dira, eta modu honetan eskuratuko dira:
- Uraren partidatik 70.000 euro jaitsiko dira.

### AURREKONTUEN ONARPEN ALBISTE ONA DA, DUEN ERAGIN POSITIBOAGATIK

- Hondakinen partidatik beste 50.000 euro.
- Eta Bertxingo zentralaren ustiaketa partidan 12.000 euro igoko dira.

Bi alderdi horiei jakinarazi zaie gainerako zuzenketak atzera botako ditugula. Hauen finantziaketarako proposatutako bideak ez dira bideragarri kasu batzuetan, eta kezkarriak besteetan. Ziurrenik hau izango da proposamen hauek publiko ez egitearen arrazoia. Hala ere, Leizotz eta Karrika-Sorabillarako ur hornidura sarearen gainerako proiektuak berrartzeko konpromisoa hartzen dugu. Beraz, aurrekontuen onarpena albiste ona da. Alde batetik, Andoain herriarentzat izango duen eragin positiboagatik, eta bestetik alderdi guztiek izan duten ekarpen mailagatik.





Asier Kidam magoak "Aroa eta mirariak" ikuskizuna eskaini zuen Saroben. AIURRI

## Elkartasunezko emanaldia

Sarobe antzokia betetzea lortu zuten, eta saioan zehar Asier Kidam magoak gertuko ikuskizun dibertigarria eskaini zuen. Ikusle guztien arreta bereganatu zuen, saioa hasi zen lehen unetik. Magia saioa amaituta, elkartasunezko txokolateaz gozatzeko aukera izan zen

### Amaia Senperena URNIETA

Gerturatutako ikusle guztien arreta bereganatzea lortu zuen Asier Kidam magoak. Eta horrez gain, haurrak zein gurasoak oholtza gainera igoarazi zituen. Nolabait esanda, ikusleak bere trikimailuen parte bilakatu zituen. Aroekin hasi, eta ikusle-goaren laguntzaz, lehoi belarjalea, bi lapurren istorioa eta sua erabiliz ariketa ikusgarriak eskaini zituen. Elkartasunezko saio atsegina izan zen.



Asier Kidam magoak saio dibertigarri eta parte hartzailea eskaini zuen. AIURRI

## 'Euria', familia ikuskizuna igande honetan

Adin guztietarako aproposa den ikuskizuna Saroben, 17:30ean hasita. Hitzik gabekoa, galeran oinarrituta dago. Sinopsiak zera dio: "Maite dugun norbait jadanik ez dagoenean gertatzen zaigunari buruz hitz egiten du. Eta zerbait aldatu dela ulertzeko eta onartzeko behar dugun denbora guztiari buruz".



'Euria' ikuskizuna ikusgai izango da Saroben, 17:30ean hasita. MARKELIÑE

## Magia saioa eta txokolate jatea



Magia emanaldia eta gero, hurrek txokolate beroaz gozatu zuten. AIURRI

**Lortutako dirua ikerketarako** Saioa iragartzeko kartelak zioen moduan, Urnietako ekitaldian jasotako dirua haur minbiziaren diagnostiko eta tratamenduaren goi mailako ikerkuntzara bideratu zen.



Txokolatea eta majia elkartasunezko izaerakoak izan ziren. AIURRI

**Nazioarteko eguna** Otsailaren 15a haur minbiziaren nazioarteko eguna izan zen. Urnietan bezala, estatu osoan zehar ere ekitaldi ezberdinak antolatu ziren. Urnietakoa Super Hk antolatu zuen, Udalaren eta Pedro Mayo txokolatearen laguntzarekin.



Super Hko eta txokolatada solidarioko kideak, San Juan plazan. AIURRI

**Super H elkartearen eskertza** Biharamunean Urnietako elkartek esker oneko mezua zabaldu zuen sareetan: "Mikelengatik, Saioarengatik, Luciarengatik, Danelengatik... eta beste hainbat haur eta beraien familiengatik mila esker!".

**KARTELDEGIA: FUTBOLA**



Urnieta KE taldeko senior mailako neska. **AJURRI**

**FUTBOLA**

**PREFERENTE MAILA**

**EMAITZA**

Euskalduna-Tolosa	1-0
Urnieta-Trintxerpe	2-2

**SAILKAPENA**

1 Euskalduna	55 puntu
2 Touring	43 puntu
3 Mundarro	43 puntu
12 Urnieta	21 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDAK**

17:45 Mundarro-Euskalduna / Lar, 23
17:20 Santo Tomas-Urnieta / Lar, 23

**ERREGIONAL MAILA**

**EMAITZA**

Herrera-Euskalduna	3-0
--------------------	-----

**SAILKAPENA**

1 Axular	48 puntu
2 Kostkas	45 puntu
8 Euskalduna	21 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

17:30 Euskalduna-Kostkas / Lar, 23
------------------------------------

**GORENGO MAILA, NESKAK**

**IGOERA FASEA**

**EMAITZA**

Urnieta-Hondarribi	3-0
--------------------	-----

**SAILKAPENA**

1 Intxaurdi	3 puntu
2 Urnieta	3 puntu
6 Añorga	0 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

18:30 Añorga-Urnieta / Lar, 23
--------------------------------

**JUBENIL MAILA, OHOREZKOA**

**EMAITZA**

Beasain-Euskalduna	1-7
--------------------	-----

**SAILKAPENA**

1 Mondragon	44 puntu
2 Billabona	43 puntu
11 Bergara	26 puntu
13 Euskalduna	26 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

15:30 Euskalduna-Bergara / Lar, 23
------------------------------------

**JUBENIL MAILA, KOPA**

**EMAITZAK**

Urnieta-Danena	3-2
----------------	-----

**SAILKAPENA**

1 Usurbil	13 puntu
2 Urnieta	8 puntu
7 Euskalduna	2 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDAK**

17:45 Usurbil-Urnieta / Lar, 23
19:30 Euskalduna-Mundarro / Lar, 23

**KADETE MAILA, OHOREZKOA**

**EMAITZA**

Euskalduna-Baskonia	3-3
---------------------	-----

**SAILKAPENA**

1 Antiguoko	54 puntu
13 Mundarro	22 puntu
15 Euskalduna	11 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

09:30 Mundarro-Euskalduna / Lar, 23
-------------------------------------

**KADETE MAILA, NESKAK**

**KOPA**

Euskalduna-Amara Berri	2-3
Goerri A-Urnieta	2-0

**SAILKAPENA**

1 Mundarro	12 puntu
5 Euskalduna	6 puntu
7 Urnieta	0 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

10:30 Luberri-Euskalduna / Ig, 24
15:30 Urnieta-Mundarro / Lar, 23

**KADETE MAILA, MUTILAK**

**KOPA, 5. MULTZOA**

**EMAITZA**

Urnieta A-Ekintza	1-3
-------------------	-----

**ASTEBURUKO PARTIDA**

12:00 Herrera B-Urnieta A / Lar, 23
-------------------------------------

**KOPA, 7. MULTZOA**

**EMAITZA**

Euskalduna-Danena A	1-6
Usurbil-Urnieta B	1-3

**SAILKAPENA**

1 Danena	13 puntu
2 Zarautz B	11 puntu
3 Idiazabal A	10 puntu
4 Urnieta B	9 puntu
7 Euskalduna	1 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDAK**

10:00 Idiazabal A-Euskalduna / Lar, 23
--



Nahikari Garcia urnietarra. **AJURRI**

**Kopako finalean eta Munduko txapelketan jokatzera jomugan**

**FUTBOLA** Nahikari Garcia nazioarte mailan aritzeko arazorik ez lukeen futbol jokalaria da. Asteburuan, Sevillari milaka lagun aurrean 3-1 irabazi eta Erreginaren kopako finalerako txartela lortu eta gero, Espainiako selekzioarekin jokatzeko deitu dute. Duela ez asko, ametsetan ere agertuko ez litzaiokeen egoera bizitzen ari da urnietarra.

Otsailaren 25etik martxoaren 7ra bitarte Algarven arituko da, Espainiako selekzioarekin deituta. Ekainean munduko txapelketa jokatu da Frantzia, eta Nahikari Garcia selekzioaren azken deialditan sartzen ari da. Gauzak ondo, mundu mailako txapelketa handiengan jokatzeko aukera izan dezake. Sekulako lorpena litzateke hori.

Etor daitezkeenak baino lehen, erdietsitako lorpenak daude. Urrutira joan gabe, Anoetan igande arratsaldean lortu zutena. Estrainekoz, Realeko neska kopako finala jokatzeko sailatu dira. 18.000 mila lagun aurrean egin zuten, gainera. Esan gabe doa jokalaririk guztiak pozarren zeudela. Partida amaituta, hauexek Realeko komunikazio taldeari Garciak adierazi ziona: "Oso polita da, ikusgarria izan da Anoeta horrela ikustea. Guretzat ametsa da, partida irabazita finalean gaudelako. Ezin dugu gehiago eskatu".

**Finala, Granadan**

Erreginaren kopako finala Andaluzian jokatu da, hurrengo maiatzaren 11n. Granadako Los Carmenes futbol zelaian izango da, Atletico de Madrid eta Realaren artekoa. Donostiarrentzat historikoa izango da.

**KARTELDEGIA: ESKUBALOIA**



Leizaran eskubaloiko neska. **LEIZARAN**

**ESKUBALOIA**

**SENIOR MAILA**

**GIPUZKOA 1. MAILA**

Urnieta-Eibar	32-24
---------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Munttarpe	24 puntu
3 Urnieta	20 puntu
4 Legazpi	19 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

19:15 Legazpi-Urnieta / Lar, 23
---------------------------------

**GIPUZKOA 2. MAILA | 1. TALDEA**

Elgoibar-Urnieta	25-26
------------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Saioeko	24 puntu
2 Urnieta	21 puntu
3 Tolosa	20 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

10:00 Urnieta-Aloña Mendi / Ig, 24
------------------------------------

**GIPUZKOA 2. MAILA | 2. TALDEA**

Saieko-Leizaran	27-28
-----------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Leizaran	27 puntu
2 Urola	27 puntu
3 Legazpi	17 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

17:45 Leizaran-Bergara / Lar, 23
----------------------------------

**SENIOR MAILA, NESKAK**

**EMAITZA**

Munttarpe-Leizaran	19-21
--------------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Urbil	28 puntu
2 Egia	22 puntu
3 Leizaran	20 puntu
4 Munttarpe	14 puntu

**JUBENIL MAILA, NESKAK**

**UDABERRI TORNEOA**

Bergara-Urnieta	17-24
Leizaran-Ereintza	21-14

**SAILKAPENA**

1 Elgoibar	6 puntu
2 Leizaran	6 puntu
3 Urnieta	4 puntu
4 Eibar	2 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDAK**

12:00 Leizaran-Urnieta / Ig, 24
---------------------------------

**JUBENIL MAILA, MUTILAK**

**UDABERRI TORNEOA**

Urnieta-Arrasate	23-26
------------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Urola	4 puntu
4 Amenabar	4 puntu
5 Urnieta	4 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDAK**

17:45 Amenabar-Urnieta / Lar, 23
----------------------------------

**JUBENIL MAILA, MUTILAK**

**GIPUZKOA TROFEOA**

Leizaran-Hettich	23-26
------------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Egibide	4 puntu
4 Hettich	4 puntu
5 Leizaran	0 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

16:00 Ereintza-Leizaran / Lar, 23
-----------------------------------

**KADETE MAILA, MUTILAK**

**UDABERRI TORNEOA**

Leizaran-Amenabar	26-27
-------------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Amenabar A	6 puntu
3 Ereintza	5 puntu
4 Leizaran	5 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

16:00 Ereintza-Leizaran / Lar, 23
-----------------------------------

**KADETE MAILA, MUTILAK**

**GIPUZKOA TROFEOA**

Amenabar-Urnieta	25-28
------------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Urola	6 puntu
3 Urnieta	2 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

11:30 Urnieta-Urola / Ig, 24
------------------------------

**KADETE MAILA, NESKAK**

**GIPUZKOA TROFEOA**

Pulpo-Leizaran	22-23
----------------	-------

**SAILKAPENA**

1 Leizaran	4 puntu
2 Pulpo	4 puntu
3 Eibar	2 puntu

**ASTEBURUKO PARTIDA**

19:15 Aiala-Leizaran Urdina / Lar, 23
---------------------------------------



Ainara Mujika aurkarien artean, atera jaurtitzeko prest. UKE

## Lehen garaipena lortu dute Euskadiko kadete nesken ligan

**ESKUBALOIA** Urduliz garaitu zuten Urnietan jokaturako partidari, Euskadiko ligako laugarren jardunaldian

**Erredakzioa** URNIETA

Euskadiko ligan aritzea ez da batere erraza, eta aurkari guztien maila ona da. Urnietarrek gogo bizia erakutsi zuten, partidaren lehen minututik abantaila lortuz. Atsedendia 15-9 iritsi ziren. Bigarren zatian nekeak eragina izan bazuen ere, garaipenari eusten asmatu zuten.

### KADETE MAILA, NESKAK

#### EUSKADIKO KADETE LIGA

Urnietan-Urduliz **26-23**

#### SAILKAPENA

1	Errotaberri	6 puntu
2	San Adrian	6 puntu
4	Urnietan	2 puntu

#### ASTEBURUKO PARTIDA

11:15 Errotaberri-Urnietan / Lar, 23



Igoerarako bidean, Mundaroren aurka partida garrantzitsua dute asteburuan. EUSKALDUNA

## Arauzko denbora agortuta iritsi ziren lehen gola eta garaipena

**FUTBOLA** Roteta eta Tolosa taldeen aurka 1-0 irabazi du, oso partida berdintsuetan. Aurkari zaila, hurrengo

**Erredakzioa** ANDOAIN

Hurrengo jardunaldian oso neureketa zaila dute urdinek, eta klubetik animatzeko deia luzatu dute: "Astigarragako Mundaroren zelaietan izango da parti-

da, larunbatean 17:45tan hasita. Aukera ederra da, igoerari begira. Lerro hauetatik zalego urdinari taldea animatzera gerturatzeko gonbitea luzatu nahi diogu".

## Andoaingo Areto Futbol txapelketa aurrera doa

**ARETO FUTBOLA** Txapelketako 6. jardunaldian lidertza aldaketa izan da.

#### EMAITZAK

Pausoka-Rayo	11-2
Ekhia-Aker Beltz	6-0
Irunberri-Batzokia	6-0
Brikogoros-Keler	2-22
DAD. Kutxa-Ganbara Bi	5-3
Ganbara-Brew & Roll	4-5
C. Antonio-Academia G.F.	6-0

#### SAILKAPENA

1	Keler	15 puntu
2	Ekhia	15 puntu
3	DAD. Kutxa	15 puntu

## Emozio handiko liga sailkapeneko lehen lau talderentzat

**ARETO FUTBOLA** Euskaldunak lidertza eusten dio, baina aurkariak ez daude etsitzeko prest.

#### EMAITZA

Lauburu-Euskalduna **2-0**

#### SAILKAPENA

1	Euskalduna	39 puntu
2	Orixe	39 puntu
3	Jaixki	38 puntu
5	Oiartzun	32 puntu

#### PARTIDA ALLURRALDEN

16:15 Euskalduna-Oiartzun / Lar, 23

## Ganbara saskibalo taldeko emaitzak eta asteburuko partidak

**SASKIBALOIA** Lau taldeak lehen dira. Asteburuan lautik hiru partida Allurralden jokaturako dira.

#### EMAITZAK

Axular-Ganbara Jub	60-25
Añorga-Ganbara Kad	71-32
ATSS-Ganbara Inf. A	51-49
Ganbara Inf. B-Eibar	36-53

#### PARTIDAK ALLURRALDEN

09:00 Ganbara Kad-Eibar / Lar, 23

19:15 Ganbara Jub-Zats / Lar, 23

09:15 Ganbara Inf. A-Peñaflorida / Ig, 24

## Udaberri Txapelketako paleta gomazko partidak Urnietan

#### PARTIDAK URNIETAN

20:00 Urnietan 1-Kuku 1 / Ost, 22

20:00 Urnietan 2-Lagunak 3 / Ost, 22



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

## Zozoak beleari ipurbeltz

**SASKIBALOIA** Artikulu honetan saskibaloaren ontasunez mintzatu behar nintzen; Baskoniaren lan onaz; Euskal Herriko zale jatorren parranda giroaz; Madrilgo gauza onak saldu, asko eta onak baititu (txar gutxi batzuk ere bai). Baina aktualitatea norberaren desioak baino indartsuagoa da, eta igande gauean, 21.30ak aldera sortu zen iritzi korrantea geldiezin bilakatu du aste honetan. Bartzelona eta Real Madrilen arteko finaleko azken 10 segundoetan ikusitako bi jokaldi izan dira hizpide. Aurreko 72 orduetan gertaturako oro haizeak eraman du, dagoeneko.

Zer gertatu zen enteratuko zineten, dagoeneko, saskibalo zale peto izan gabe ere... Espainiako futbol programa polemikoek ere tartea egin baitiote saskibaloari, behingoz. Jakina, bazka eta polemikaren bila... Epaileen akats bik baldintzatu zuten finala. Bartzelonaren txapela atzeratu zuena, lehenengoa. Real Madrili Kopa lapurtu ziona, bigarrena. Bai, lapurtu diot, telebistako errepikapenak ikusi ostean epaileek hartu zuten erabakia hartzea ulergaitza baita. Nire tesia argia da. Norbaitek, epaileei, Bartzelona modu erabakigarrian kaltetu zutela jakinarazi zieten telebistan ikusi ez zen uneren batean, eta konpentsazio moduan, Tomic-en saskiratzea ontzat eman zuten, hala ez zenean. Nik esatea gutxienezkoa da, ez bainaiz epaile, baina epaile, teknikari eta jokalariek denek berretsi dute.

## ERREPIKAPENA IKUSI OSTEAN EPAILEEK HARTU ZUTEN ERABAKIA HARTZEA ULERGAITZA DA

Ondorengo? Iskanbila latza. Barça txapelketa, eta Real Madrileko prentsa eta propaganda makinaria egurrean etengabe. Jokalari batzuk epaileei lapurrak eta lotsagabeak deitzen publikoki, saskibalo talde horretako arduradun goren epaileen kanporatzea exigituz prentsa aretoan. Eta gurgilari abiada handiagoko emateko, Real Madrilen mehatxua, ACB liga uzteko, elkarte horrek eta epaileen barkamen publikoa eskatzen ez bazuten. Batek tira, besteak bultza, polemikak ez du etenik, eta ez du izango epe ertainean. Bitxia egiten zait Real Madrileko jokalariek halako erreakzio gogorra izatea. Lapurtu dietena baino askoz gehiago baita, urteetan eman dietena. Adibide bat, hori ulertzeko. Gogoratzen al zarete Gasteizko Kopan Andorraren aurkako partidari jokoz atzera sonatu harekin zer gertatu zen? Ba gaur da eguna, non Real Madrileko jokalariek eta zaleek, ironiaz, tituluak 'Era campo atrás' abestiarekin ospatzen dituzten. Alegia, mesede egin izan dieten epaileen erabakiez trufatzen dira, baina kalte egiten dieten delitu gaiztoenekin parekatu. Horrek indarra kentzen die bere protestei. 2020koa Malagan izango da. Enpresari esan diot, hurrengo urteko zale gisa bizi nahiko nukeela. Kazetari jardunean oso suert txarra edukitzen ari naizelako Baskoniarekin. Joaterako, etxera buelta pentsatzen! Gainera, Kopa bat zale gisa bizitzea esperientzia ikaragarria da...

www.aiurri.eus

AIURRI  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia  
• Postontzia

## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 21

## ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko Udal batzarraldia, besteak beste, 2019ko Udal aurrekontu proposamena eztabaidatu eta onartzeko.

19:00, Udaletxea.

## OSTIRALA 22

## ANDOAIN Kontzertua

"Quartet party". Klarinete ikasleek, laukoteetan bilduta, musika anitzeko emanaldia eskainiko dute.

19:15, Bastero.

## URNIETA Diaporama

"Tailandia", Maddalen Kortajarenaren eskutik.

18:30, Lekaio.

## ANDOAIN Kaldereroak

Kalderero txikien kalejira herrian barrena, Gora Kaletxiki txarangak lagunduta.

15:00, Ondarreta ikastetxetik.

## ANDOAIN Inauteriak

Inauterietako desfilean izena emateko azken eguna.

10:30-13:30/16:30-19:30, Bastero.

## LARUNBATA 23

## ANDOAIN Erakusketa

Frederic Gutierrez Barderen 'Izakia eta itzalen artean'.

Azken eguna, otsailaren 23a.

## ANDOAIN Kaldereroak

Kaldereroen kalejira herrian barrena.

17:00, irteera Ontza elkartetik.

18:00, Kanpaldia Goikoplazan

## IGANDEA 24

## ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Linbo planeta", Dejabu. Inork oroitzen ez duen leku bat. Hondarrez, zaborrez eta hondakinez inguratutako leku urrun bat. Gerrak utzitako hondamendia agian? Errefuxiatu kanpamentu bat akaso? Bertan zortzi urteko neskatila bizi da, bakarrik: Numa.

17:00, Bastero.



Kaldereroak Andoainen, iazko edizioan. AIURRI

## ANDOAIN Kaldereroen etorrera

Bi egun ezberdinetan, Kaldereroen ospakizuna Andoainen. Bi egunetan, kaldereroen kalejirak Gora Kaletxiki txarangak alaituko ditu.

15:00, Kalderero txikiak Ondarreta ikastetxetik. Otsailak 22, ostirala.

17:00, Kaldereroen ospakizuna herrigune osoan. Otsailak 23, larunbata.

## URNIETA Haur ikuskizuna

"Euria", Markeliñeren eskutik. Zerbait maite eta galtzen dugunean gertatzen zaigunari eta sentitzen dugunari buruzko hausnarketa da.

17:00, Sarobe.

## ASTELEHENA 25

## ANDOAIN Inauteriak

Martxoaren 2ko desfilearen ordena erabakitze eta inauteri festaren xehetasunei buruzko bilera.

19:00, Urigain.

## ASTEARTEA 26

## ANDOAIN Lehiaketa

8-15 urte bitarteko gaztetxoentzat deitutako maskara lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna.

17:00-19:00, Bastero.

## ASTEAZKENA 27

## ANDOAIN Aurkezpena

"Pausoz pauso" kalejira protagonista izango direnak iragarriko dituzte.

18:30, Bastero.

## OSTEGUNA 28

## ANDOAIN Inauteriak

Ostegun Gizona Andoainen.

15:15, Ikasleen kalejira Basteron.

16:15, Pregoia udaletxean.

17:15, Beldurraren etxea Gazte Lokalean.

17:30, Maskara lehiaketaren sari banaketa Urigainen.

18:30, Txistulariak Goikoplazatik.

19:00, Pintxo pote musikala Bastero plazatik.

## OSTIRALA 1

## ANDOAIN Inauteriak

Inauterien segidako ekitaldiak.

17:30, Mozorro festa Gazte Lokalean.

18:00, "Dar-dar" ipuin musikatu Basteron.

## LARUNBATA 2

## URNIETA Inauteriak


12:30, Kalejira.

14:30, Herri bazkaria.

16:00, Topaketa San Juan plazan.

18:30, Elektrotxaranga.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

## Green Book

Larunbata, 23:

19:30; 22:00.

Igandea, 24:

19:30.

Aselehena, 25:

19:30; 22:00.

## El orden divino

Astearte, 5:

18:00.

Suitzako emakumeen bozka eskubidearen aldeko borroka. Film emanaldia eta gero, solasaldia: "Eta lortu egin genuen!".



## SINOPSIS



## Green book

Zuz.: Peter Farrelly. Herr.: AEB (2019). Aktoreak: Viggo Mortensen, Mahershala Ali, Linda Cardellini. Iraupena: 130 minutu.

## Arrakasta handiko filma

Italiar jatorriko auto gidari zatarra da Tony (Viggo Mortensen). Lan berria eskaini diote, Don (Mahershala Ali) musikari afroamerikarra

batetik bestera eramatea. Musika bira horretan liburu berdeko daramate, azal beltzeko bezeroak onartzen dituzten gida. Film saritua izaten ari da.

## Inauteriak Urnietan, ospakizun bikoitza martxoaren 2an eta 3an

Urnietako Udalak aurtengo ospakizunen aurrerapena eskaini du. Urnietan gaia jarri ohi da, eta mozorroak horren inguruan egiten dira. Aurtengo gaia bideojokoak dira. Ospakizunei dagokionez, festa nagusia martxoaren lehen larunbatean izango da. Eta biharamunean, igandearekin, Etxeberri plazako bizilagunek festa antolatuko dute.


Martxoaren 2ko ospakizunari dagokionez, eguerdiko 12:30ean poteoa eta kalejira egingo dituzte. 14:30ean herri bazkaria antolatu du Poxta Zahar elkarteak, San Juan plazako frontoian egingo dutena. Arratsaldean berriz,

16:00tan hasita, talde guztien arteko topaketa egingo dute San Juan plazan. Bosko Anitz taldearekin kalejira irtengo dira, Idiazabal kalean barrena ibiltzeko. 18:30 hasiko da Elektrotxaranga.

Martxoaren 3an, igandearekin, Etxeberri auzoko elkarteak ospakizun ezberdinak iragarri ditu: txokolate jatea, maskara tailerra, mozorro lehiaketa eta pintxopotea. Euriarekin, ospakizuna Egape ikastolako jolastoki estalian izango dela iragarri dute.

Inauteriak irauan bitartean trafiko mozketak egingo dituzte Idiazabal kalean.

## ZORION AGURRAK




**URNIETA**  
**Peio**  
Zorionak! Jadantik bederatzirte bete dituzu, otsailaren 20an urteak egin eta gero. Ondo pasa zenuelakoan.



**ANDOAIN**  
**Egoi**  
Otsailaren 8an gure etxeko txikiak urtebete egin zuen. Zorionak eta muxu potolo bat etxekoan partez.



**URNIETA**  
**Nicolas Rosco**  
Hilaren 17, 8 urte. Etxekoan partetik muxuak, pianojole eta futbolari kuttunarentzat. Aita, ama eta Pablo.



**ANDOAIN**  
**Naroa**  
4 urtetxo, otsailaren 19an. Zorionak gure etxeko txikiari!! Askoi maite zaitugu!! Amabixi, aitaxi eta Julen.



**URNIETA**  
**Costanza Mateos**  
9 urte beteko dituzte otsailaren 27an. Zein handia egiten ari zaren! Amona, osaba-izeba eta lehengusuen partetik.



**ANDOAIN**  
**Iker Miguez**  
7 urte beteko dituzte martxoaren 26an. Zorionak gure etxeko erregeari eta muxu potoloak etxekoan partetik.

## TELEFONO ZENBAKIAK

### URNIETA

Bertan: 943 008 000.  
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
Ertzaintza: 943 538 840.  
Osasun zentroa: 943 006 680.

### ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.  
Udaltzaingoa: 943 300 819.  
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
Osasun zentroa: 943 006 670.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDOAIN

**Larunbata 23 eta igandea 24**  
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.  
943 592 057. Andoain.

### URNIETA

**Larunbata 23 eta igandea 24**  
ETXEBESTE: Elkano, 9. Behea.  
943 552 087. Hernani.  
**GAUEZ, BI HERRIETAN: ALDABE.**  
943 336 022. Hernani.



AIURRI

## Gora Kaletxiki txaranga, Andoaingo kaldereroetako eta inauterietako soinu banda

Mozorrotzeko egunak iristear dira, kaldereroak eta inauteriak gainean baitira. Ospakizunak dira biak, eta horrelakoetan musika ezinbestekoa izaten da. Gora Kaletxiki txaranga asteburu honetako kaldereroen ospakizun bikoitzean parte hartuko du. Ostiralean, lehenik, Ondarreta ikastetxeak herriguneari antolatuta duen

kalejiran. Eta larunbatean, ondoren, kaldereroen konpartaren irteeran. Ontza elkartetik irtengo dira, arratsaldeko 17:00tan hasita. Goikoplazan 18:00ak aldera kanpaldia ipini, eta ondoren kalejirarekin jarraituko dute. Kaldereroek inauteria iragarriko dute, mozorrotuta eta musika giro alaietan bizitzeko egunak gogora ekarriz.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732**  
edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- ▶ Hileta eguneari eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

# Eskelak Aiurriin: 90 euro

## Gidabaimena euskaraz

Euskaraz ateratzen dutenen artean zozketa antolatzen dute eskualdeko autoeskoletan, udalekin lankidetzan. Andoaingo Mendi eta Bengoetxea autoeskoletan parte hartu dute ekimenean. Aurtengo irabazleak Ainhoa Manterola Pavo eta Asier Balda Ibañez izan dira. Urrietako irabazlea Xuban Peñagarikano Aizpurua izan da, Solozabal autoeskoletan ikasitakoa.



Denera, 109 lagunek atera dute gidabaimena euskaraz. Urtez urte gorantz doan kopurua da. Egitasmoa, bereziki, 18 urte betetzen dituztenei zuzenduta dago.



Omenaldi ekitaldia. ZUBIZARRETA

## Matile Arribillagari omenaldia egin zioten Andoaingo Espigoian

Hogei eta bost urte igaro dira Matilde Arribillaga istripuz hil zenetik, baina ez dira gutxi oraindik ere ondo gogoan daukatenak, larunbatean eskaini zitzaion omenaldi ekitaldian ikusi ahal izan zen bezala. Ekitaldiari hasiera emanez, bere biloba Elixanek zenbait bertso irakurri zituen, Matilderen senarra Pedro Jauregik bere garaian idatzita utzi zituenak. Matilderen beste bilobetako bat den Alaineke, berriz, aurrekua dantzatu zuen. Bere seme Xabier Jauregi 'Xifi'k hitza hartu zuen ondoren, eta amari eskainitako idatzia irakurri zuen. Besteak beste, Matilderen nortasun irekia eta alai azpimarratu nahi izan zuen, kalera atera eta edonorekin tertulian aritzeko patxadan ibili ohi zela gogora ekarriz. Bere ideiak defendatzeko orduan erakutsi ohi zuen indarra, nortasun berezi horren ezaugarritzat jo zituen Jauregik.

Gasteien presoen senideek egitekoa zuten elkarretaratzerantz zihoala harrapatu zuen kamioi batek Matilde, eta zorigaitzeko egun hura hartu zuen gogoan emakume batek, ekitaldian bildu zen jende artetik irten eta gero. Ziurtatu zuenez, Matilde, ez bakarrik Andoainen, Euskal Herri osoan zen ezaguna.

Senideak elkarteko ordezkari bat ere mintzatu zen ekitaldian, eta joan diren hogeita bost urtetan euskal presoei ezarri zaien sakabanaketaren politika salatu zuen.

## AZKENA

# Thailandiako egonaldia Diaporama jaialdian

Urnietako Udalak bigarren aldiz antolatu du Diaporama lehiaketa. Aurtengo finalistak elkarren artean oso ezberdinak dira: Amsterdam, Tailandia eta Azore uharteak. Manex Alday izango da lehena, uharteei buruzko diaporama eskainiko baitu ostiral honetan



Maddalen Kortajarenak Thailandian izandako esperientziaren berri emango du. MK

### Olatz Lasa URNIETA

Abuztuan, bikotekidearekin batera, Thailandiara bidaiara egin zuen Maddalen Kortajarena urnietarrak. Hogeii egun pasatxo igaro zituen bertan, lehenik iparraldean eta ondoren, hegoaldean. Asiako herrialde hartako bi zonaldeak oso ezberdinak direla azaldu du, biak ere bisitatzeko merezi duena.

### Zer moduzko esperientzia izan da Thailandiara bidaiatzea?

Oso ona. Ekintza ugari eta era askotarikoak egin daitezke Thailandian. Ez daude hondartzak eta islak soilik. Bestelako jarduerak egin daitezke, hala nola trekkinga edota urpekaritza. Eraikinei dagokienez, santutegiak eta tenpluak bisitatu daitezke. Beti dago zerbait egiteko Thailandian.

### Zerk deitu dizu arreta gehien?

Eguraldiatatik bigarren plana egin beharra zegoela. Bidaiaren erdia iparraldean eman genuen, eta beste erdia hegoaldean. Hegoaldean hondartzak eremu gehiago daude, eta abuztua euri garaia izanik, beti genuen bigarren plana buruan; eta ez zen lehena baino kaskarragoa izaten.

### Bidaiaren berri diaporama lehiaketan emango duzu.

Iaz ere proposamena aurkeztu nuen. Etiopiari buruzko diaporama zen iazko hura. Kontatze-

**"BETI GENUEN BIGARREN PLANA, ETA EZ ZEN LEHENA BAINO KASKARRAGOA IZATEN"**

ko gehiago zuela iruditzen zait, baina hala ere aurtengo deialdira animatu eta sailkatzea lortu dut.

### Nolakoa izango da ostiraleko aurkezpena?



Maddalen Kortajarena. MK

## Martxoaren 1ean azken diaporama

Jaialdiko hirugarren eta azken saioa Arantxa Corbellek aurkeztuko du, Amsterdami buruzkoa.

Thailandiara bidaiatzea pentsatzen ari denari begira prestatu dut aurkezpena. Bidaiaren noan bakoitzean guztia apuntatzen dut: non lo egin dudana, zenbat ordaindu dudana... Interesgarri suerta daiteke informazio hori guztia. Gomendioak ere prestatu ditut. Baita egunerokoan egin daitezkeen plan edo ibilaldiak ere. Aurkezpena egiteko denborak askorako eman dezakeenez, Thailandian grabatutako irudiak bideo labur bat prestatu dut ere.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA